

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

128/2019 Foru Agindua, maiatzaren 2koa, zeinaren bidez baimentzen baita Oscar Fernández de la Rozaren behin-behineko izendapena egitea Laudioko Udaleko kontuhartzaile lanpostua bete dezan

Martxoaren 21eko 188/2019 Erabakiaren bidez, Joaquín Palacio Pérez gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioari esleitu zitzaion Laudioko Udaleko kontuhartzaile lanpostua, eta 2019ko apirilaren 1ean hartu zuen jabetzan. Baina, Bizkaiko Foru Aldundiaren Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako diputatuaren apirilaren 2ko 3975/2019 Foru Aginduak Joaquín Palacio Pérezen izendapena egin zuen Durangoko Udaleko kontuhartzaile lanpostua zerbitzu eginkizunetan betetzeko.

Horren harira, adierazi behar da elkarte horrek iragarkia argitaratu zuela ALHAOn 2019ko apirilaren 5ean (42 zenbakia) gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioek behin-behineko izendapen eskaerak egin zitzaizkizaten, lanpostua metaketa bidez edo zerbitzu eginkizunetan betetzeko.

Aldundi honetan aurkeztutako idazkiaren bidez, Laudioko Udalak jakinarazi zuen hartarako epea igaro zela eta ez zela lanpostua betetzeko eskaerarik aurkeztu, eta horregatik, Oscar Fernández de la Roza udaleko karrerako funtzionarioaren behin-behineko izendapena egiteko eskatu zuen, apirilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

128/2018 Errege Dekretuak, zeinaren bidez Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen baita, 52.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ezinezkoa denean postua aurreikusitako prozeduren bidez betetzea (behin-behineko izendapena, aldi baterako lan metaketa eta zerbitzu eginkizunak), autonomia erkidegoei eska dakieke behin-behinean izenda dezatela funtzionario bat, zeinak prestakuntza tekniko egokia eta, ahal den guztietan, A1 azpitaldekoa edo unibertsitate titulua izan beharko baitu. Nolanahi ere, 5.000 biztanletik gorako toki korporazioetan, A1 azpitaldeko karrerako funtzionario bat izan behar da.

Autonomia erkidegoko organo eskudunak egingo du izendapena, eta espedientean egiaztatuta geratu beharko da ezinezkoa izan dela lanpostua gaikuntza nazionaleko funtzionario batek betetzea.

Horiek horrela, egoki jotzen da Laudioko Udalak egin duen izendapen proposamena onartzea.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa –Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du 27/2013 Lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta–, non finkatzen baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Oscar Fernández de la Rozaren izendapena egitea Laudioko Udalaren kontuhartzaile lanpostua behin-behinean bete dezan, 2019ko apirilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Bigarrena. Izendapen honek lanpostuaren titularra itzuli arte izango ditu ondorioak. Dena den, edozein unetan ezeztatu ahal izango da Laudioko Udalak hala eskatuta, edo hura kargutik kendu horretarako legezko kausaren bat tarteko.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Laudioko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea ALHAOn argitara dadila.

Gasteiz, 2019ko maiatzaren 2a

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta
Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ